**AGINDUA, BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN ERROLDA SORTZEN DUEN ETA HORIEN FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2020ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez hasi zen Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen dekretu-proiektua prestatzeko prozedura.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legeak (8/2003 Legea, abenduaren 22koa) II. kapituluan ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela.

Lege horrek 7. artikuluan honako hau ezartzen du: «Xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak

**ORDEN DE LA CONSEJERA DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE CREA EL CENSO DE ORGANIZACIONES DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE EUSKADI Y SE REGULA SU FUNCIONAMIENTO**

Mediante la Orden de 30 de enero de 2020, de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, se inició el procedimiento de elaboración del Proyecto de Decreto por el que se crea el Censo de Organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi y se regula su funcionamiento.

La Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general dispone, en su Capítulo II, que el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que verse.

De conformidad con lo establecido en el artículo 7 de dicha Ley “una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la Orden de inicio, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan".

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau

En virtud de lo anteriormente expuesto,

**EBAZTEN DUT:**

**RESUELVO:**

Lehena. - Aldez aurretik onartzea Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda sortzen duen eta horien funtzionamendua arautzen duen dekretu-proiektua.

Primero. - Aprobar con carácter previo el Proyecto de Decreto por el que se crea el Censo de Organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi y se regula su funcionamiento.

Bigarrena. - Dekretu-proiektua egiteko prozedura izapidetzen jarrai dadila agintzea, hasiera-aginduan eta abenduaren 22ko 8/2003 Legean (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenean) ezarritako izapideen arabera, dekretua onartzeko baldintza baita.

Segundo. - Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, a los efectos de la aprobación del decreto.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua
La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

**DECRETO XX/XXXX, de XX de XX, por el que se crea el Censo de organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi y se regula su funcionamiento.**

La Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi en su artículo 5, establece que el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de servicios sociales creará y mantendrá actualizado un censo público de organizaciones del tercer sector social de Euskadi, siendo necesaria la inscripción para colaborar con las administraciones públicas vascas y acceder a las medidas de promoción que éstas impulsan, incluidos los programas subvencionables.

Asimismo, se establece que dicho Censo se coordinará con el Censo de Organizaciones del Voluntariado, regulado en el Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al Voluntariado.

En concreto, en el marco de tal coordinación se establece que aquellas entidades que queden inscritas en el Censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi quedarán igualmente inscritas, sin necesidad de otro trámite, en el Censo de Organizaciones del Voluntariado.

Por lo tanto, el presente Decreto tiene como objeto crear el censo público de organizaciones del tercer sector social de Euskadi, así como regular su funcionamiento, estableciendo en particular, los procedimientos de inscripción, actualización y cancelación.

De este modo, con la articulación de este Decreto, se trata de cumplimentar el objetivo inicial y básico de conocer el número y la composición de las organizaciones del tercer sector social existentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de dar cumplimiento al mandato establecido en la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, de crear un instrumento de utilidad para el conocimiento, publicidad, análisis, planificación, ordenación y promoción del tercer sector social de Euskadi.

Así mismo, se prevé la colaboración mutua del Censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi y el Observatorio Vasco del Tercer Sector Social, a efectos de tener conocimiento de la realidad social, en especial del número y composición de las organizaciones del tercer sector social existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En su virtud, y de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y a propuesta de la Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, previa deliberación del Consejo de Gobierno en la sesión celebrada el día x de xxxxx de 2022,

**DISPONGO:**

## Artículo 1.- Objeto y adscripción

1.- El presente Decreto tiene por objeto crear el censo público de organizaciones del tercer sector social de Euskadi, (en adelante Censo), así como regular su funcionamiento, en cumplimiento del mandato legal del artículo 5 de la Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social de Euskadi, (en adelante Ley del Tercer Sector).

2.- El Censo estará adscrito al Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de servicios sociales, siendo, en concreto, el órgano encargado de la gestión y

mantenimiento del mismo, la Dirección competente en materia de servicios sociales, (en adelante órgano gestor).

**Artículo 2.- Régimen jurídico**

1.- El Censo se configura como un instrumento básico de conocimiento y publicidad, y en calidad de tal, tiene la función de proporcionar el conocimiento de las organizaciones que forman parte del tercer sector social en Euskadi.

2.- Asimismo, constituye un instrumento de naturaleza pública y el acceso al mismo deberá ejercerse en los términos y condiciones establecidas en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones públicas y en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno.

3.- El Censo será público, al menos, respecto a la denominación, los fines y al ámbito territorial de actuación de la organización. En todo caso, la publicidad se ajustará a los requisitos establecidos en la normativa de protección de datos de carácter personal.

**Artículo 3.- Ámbito de aplicación**

Se podrán inscribir en el Censo las siguientes entidades:

1.- Asociaciones, fundaciones, cooperativas de iniciativa social y cualesquiera otras entidades, formalmente constituidas y dotadas de personalidad jurídica propia, con sede y actividad en Euskadi, que realicen actividades de intervención social y que posean las características recogidas en el artículo 3 de la Ley del Tercer Sector.

2.- Las organizaciones señaladas a continuación, siempre y cuando realicen actividades en el ámbito de la intervención social, formen parte de alguna red del tercer sector social de Euskadi y adopten sus códigos de conducta y cumplan las obligaciones señaladas en el artículo 16 de la Ley del Tercer Sector:

a. Fundaciones o entidades históricas actualmente existentes y que cuenten con un recorrido superior a cincuenta años en la Comunidad Autónoma del País Vasco, siempre que estén incorporadas en alguna red del tercer sector social y cumplan los requisitos especificados en los artículos 2.1 y 3 de la Ley del Tercer Sector, aunque en sus estatutos originarios establezcan la presencia mayoritaria o única de representantes de instituciones públicas en sus órganos de gobierno. Dichas entidades deberán constar en la lista mencionada en el apartado a) del párrafo 3 del artículo 2 de la Ley del Tercer Sector.

b. Entidades que no cumplan alguno de los requisitos de los previstos en el art. 3 de la Ley del Tercer Sector, siempre que estén participadas mayoritariamente de forma directa o indirecta, por organizaciones del tercer sector social, hayan sido constituidas para la consecución de los objetivos sociales de estas, tengan su sede y desarrollen su actividad principalmente en Euskadi, y mantengan el carácter no lucrativo de su actividad. En el caso de sociedades mercantiles, se entenderá como carácter no lucrativo la previsión estatutaria de la obligación de reinversión de los beneficios en las actividades que constituyen su objeto social. En especial, se incluirá en este ámbito a los centros especiales de empleo y a las empresas de reinserción social y laboral que estén debidamente inscritas en sus registros oficiales correspondientes, siempre que cumplan con los requisitos

recogidos en el párrafo tercero del artículo 2 de la Ley del Tercer Sector, además de los previstos en su normativa específica

**Artículo 4.- Contenido del Censo.**

En el censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi se inscribirán, al menos, los siguientes datos:

a) Nombre de la organización

b) Número de inscripción en el registro correspondiente a su naturaleza jurídica

c) NIF, salvo las no obligadas.

d) Domicilio social

e) Fines de la organización.

f) Ámbito territorial de actuación

g) Representante legal

h) Recursos humanos de la organización, con expresión del número de personas contratadas y del número de personas voluntarias.

i) Cualquier otro dato, cuando así lo determine la legislación en vigor

**Artículo 5.- Efectos de la inscripción**

1.- Será necesaria la inscripción para colaborar con las administraciones públicas vascas y acceder a las medidas de promoción que éstas impulsan, incluidos los programas subvencionables.

2.- En ningún caso la inscripción tendrá efectos constitutivos, ni de autorización.

3.- La resolución de inscripción tendrá efectos desde la fecha en que se dicte.

4.- Con la inscripción, el órgano gestor del Censo impulsará de oficio el inicio del procedimiento de inscripción en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado.

A estos efectos, se dará traslado de la resolución de inscripción en el Censo público de organizaciones del tercer sector social de Euskadi al órgano gestor del Censo General de Organizaciones del Voluntariado para que compruebe el cumplimiento de los requisitos para la inscripción y si procede, realice la misma.

**Artículo 6.- Solicitud de inscripción**

1.- El procedimiento para la inscripción de las organizaciones del tercer sector social de Euskadi a las que se refiere el artículo 3 del presente Decreto, se iniciará mediante solicitud de inscripción por quien ostente la representación de la misma.

2.- La solicitud de inscripción deberá realizarse por vía electrónica en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. https://www.euskadi.eus/servicios/009xxxx

**Artículo 7.- Documentación que debe aportarse con la solicitud**

1.- La documentación que se presentará, por vía electrónica, junto a la solicitud será la siguiente:

a) Acreditación de la representación de quien suscriba la solicitud.

b) Copia del acta de constitución o acuerdo de creación de la entidad, así como de sus estatutos.

c) Certificado de inscripción en el Registro correspondiente a su naturaleza jurídica

d) Certificado en el que se indique la identidad de las personas que integran el órgano de gobierno.

e) Certificado acreditativo de los recursos humanos de la organización, con expresión del número de personas contratadas y del número de las personas voluntarias

2.- No será preciso presentar la documentación a la que se refiere los apartados anteriores b), c) y d) del párrafo anterior, cuando la organización conste ya inscrita en un registro público dependiente de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi

3.- En la solicitud, se incluirá la posibilidad de que la entidad interesada consienta expresamente que parte de la documentación sea obtenida o verificada por el órgano gestor, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tiene atribuidas la Administración Pública. No obstante, la entidad solicitante podrá oponerse expresamente a dicha verificación debiendo aportar la documentación que corresponda.

4.- El órgano gestor competente verificará la documentación presentada y, si advirtiera en la solicitud algún defecto o inexactitud, o la ausencia de algún documento de los que deban acompañar la misma, requerirá a la entidad interesada para que en el plazo de diez días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos omitidos, con la indicación de que así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su solicitud, mediante resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

**Artículo 8. Resolución del procedimiento de inscripción**

1.- Vista la solicitud y la documentación que se acompañe, el órgano gestor resolverá motivadamente, ordenando o denegando la inscripción correspondiente.

2.-El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento de inscripción, será de tres meses contados a partir del día en el que la solicitud tuvo entrada en el registro electrónico de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de

Euskadi. Si transcurrido dicho plazo no se hubiera dictado y notificado resolución expresa, la entidad interesada podrá entenderla estimada por silencio administrativo.

3.- Contra la resolución que se dicte, que no agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes ante el superior jerárquico del órgano gestor, a contar desde el día siguiente al de la notificación de dicha resolución en los términos establecidos en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

**Artículo 9.- Actualización de datos**

1.- Cualquier actualización de los datos inscritos deberá ser comunicada al órgano gestor junto con la documentación justificativa de la misma, conforme a lo previsto en el artículo 7.

No será necesaria la comunicación cuando dicha información ya conste en alguno de los registros públicos dependiente de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi donde consta inscrito.

2.- En todo caso, la actualización se inscribirá siempre que se mantengan los requisitos que fundamentaron la inscripción.

3.- La actualización de datos deberá realizarse por vía electrónica en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi .https://www.euskadi.eus/servicios/009xxxx

4.- El órgano gestor podrá requerir a las organizaciones inscritas, en cualquier momento, para que ratifiquen los datos inscritos o comuniquen las actualizaciones producidas, con la advertencia de que si obvian dicho requerimiento podrá iniciarse de oficio el procedimiento para cancelar su inscripción.

**Artículo 10.-Cancelación de la inscripción**

1.- La cancelación de la inscripción se podrá iniciar a instancia de parte o de oficio.

2.- La solicitud de cancelación iniciada a instancia de parte deberá presentarse por vía electrónica en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. https://www.euskadi.eus/servicios/009xxxx

3.- La cancelación de la inscripción podrá iniciarse de oficio cuando el órgano gestor tenga conocimiento del incumplimiento de alguno de los requisitos necesarios para la inscripción o en el supuesto previsto en el apartado 4 del artículo anterior, previo trámite de audiencia a la entidad interesada por un plazo de diez días hábiles a contar desde la fecha de notificación.

4.- El plazo máximo para dictar y notificar la resolución del procedimiento de cancelación iniciado a instancia de parte, será de tres meses contados a partir del día en el que la solicitud tuvo entrada en el registro electrónico de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Si transcurrido dicho plazo no se hubiera dictado y notificado resolución expresa, la entidad interesada podrá entenderla estimada por silencio administrativo.

5.- Contra la resolución que se dicte, que no agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso de alzada en el plazo de un mes, ante el superior jerárquico del órgano gestor a contar desde el día siguiente al de la notificación de dicha resolución en

los términos establecidos en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

6.- En los procedimientos iniciados de oficio, el plazo de tres meses comenzará a contar desde la fecha del acuerdo de iniciación del procedimiento de cancelación, produciendo el transcurso de dicho plazo, la caducidad del procedimiento.

**Artículo 11.-Tramitación electrónica**

La tramitación se realizará exclusivamente de manera electrónica, en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. https://www.euskadi.eus/servicios/009xxxx

El acceso al expediente y los trámites posteriores a la solicitud se realizará a través de «Mi carpeta» de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi: https://www.euskadi.eus/micarpeta

**DISPOSICIÓN ADICIONAL. - Inscripción de entidades beneficiarias de subvenciones del Tercer Sector Social de Euskadi**

A la entrada en vigor del presente Decreto, quedarán inscritas en el Censo, sin necesidad de solicitud previa, las entidades beneficiarias de la última convocatoria resuelta y prevista en el Decreto 271/2012, de 4 de diciembre, por el que se regulan las subvenciones para el fomento de actividades del tercer sector en el ámbito de la intervención social en el País Vasco, previa comprobación de oficio del cumplimiento de los requisitos para efectuar la inscripción.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA. - Régimen transitorio**

La inscripción en el Censo se exigirá en las convocatorias de subvenciones que las administraciones públicas vascas realicen, a partir de los 6 meses siguientes a la entrada en vigor del presente decreto.

**DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA. - Régimen supletorio**

En lo no previsto expresamente en este Decreto en relación al procedimiento administrativo, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA. - Desarrollo reglamentario**

Se faculta a la persona titular del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de servicios sociales para realizar cuantas acciones sean necesarias para el desarrollo y la ejecución del presente Decreto.

**DISPOSICIÓN FINAL TERCERA. -** Entrada en vigor

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a…

El Lehendakari,

IÑIGO URKULLU RENTERIA.

La Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales,

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

**XX/XXXX DEKRETUA, XXXXXaren XX(e)koa, zeinaren bidez sortzen baita Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda, eta haren funtzionamendua arautzen baita.**

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak 5. artikuluan ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzan gizarte-zerbitzuen arloko eskumena duen sailak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publiko bat sortu eta eguneratuko du, eta beharrezkoa izango da errolda horretan inskribatzea euskal administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko eta haiek bultzatzen dituzten sustapen-neurriak eskuratzeko, diruz lagun daitezkeen programak barnean direla.

Halaber, ezartzen da errolda hori boluntariotzako erakundeen erroldarekin koordinatuko dela, zeina 169/2000 Dekretuan araututa baitago –169/2000 Dekretua, irailaren 1ekoa, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituena–.

Zehazki, koordinazio horren esparruan, hau ezartzen da: Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan inskribatzen diren erakundeak boluntariotzako erakundeen erroldan ere inskribatuta geratuko dira, beste izapiderik egin beharrik gabe.

Horrenbestez, dekretu honen xedea da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoa sortzea eta haren funtzionamendua arautzea, eta, bereziki, inskribatzeko, eguneratzeko eta ezerezteko prozedurak ezartzea.

Horrela, dekretu honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren sektore sozialeko erakundeen kopurua eta osaera ezagutzeko hasierako eta oinarrizko helburua bete nahi da, bai eta Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean ezarritako mandatua bete ere: Euskadiko hirugarren sektore soziala ezagutzeko, jakitera emateko, aztertzeko, planifikatzeko, antolatzeko eta sustatzeko tresna baliagarri bat sortzea.

Era berean, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldaren eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren arteko lankidetza aurreikusten da, errealitate sozialaren berri izateko, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren sektore sozialeko erakundeen kopurua eta osaera ezagutzeko.

Horrenbestez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin bat etorriz, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2022ko ..........aren......(e)(a)n egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

**1. artikulua.- Xedea eta adskripzioa**

1.- Dekretu honen xedea da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoa (aurrerantzean, errolda) sortzea eta haren funtzionamendua arautzea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen (aurrerantzean, Hirugarren Sektorearen Legea) 5. artikuluan ezarritako lege-mandatua betetzeko.

2.- Errolda gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak dituen sailera adskribatuta egongo da, eta gizarte-zerbitzuen arloko zuzendaritza eskuduna arduratuko da errolda hori kudeatzeaz eta mantentzeaz (aurrerantzean, organo kudeatzailea).

**2. artikulua.- Araubide juridikoa**

1.- Errolda ezagutzarako eta publizitaterako oinarrizko tresna da, eta, beraz, Euskadin hirugarren sektore soziala osatzen duten erakundeen berri emateko eginkizuna du.

2.- Halaber, tresna publikoa da, eta, beraz, sarbidea lege hauetan ezarritako moduan eta baldintzetan arautuko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean.

3.- Errolda publikoa izango da, gutxienez erakundearen izenari, helburuei eta jarduteko lurralde-eremuari dagokienez. Betiere, datu pertsonalak babesteko araudian ezarritako betekizunak bete beharko ditu publizitateak.

**3. artikulua.- Aplikazio-eremua**

Erakunde hauek inskriba daitezke erroldan:

1.- Elkarteak, fundazioak, gizarte-ekimeneko kooperatibak eta bestelako erakundeak, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte: formalki eratuta egotea eta nortasun juridiko propioa izatea; egoitza eta jarduera Euskadin izatea; esku-hartze sozialeko jarduerak egitea, eta Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 3. artikuluan jasotako ezaugarriak izatea.

2.- Ondoren aipatzen diren erakundeak, baldin eta esku-hartze sozialeko jarduerak egiten badituzte, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareren baten barnean badaude eta sare horren jokabide-kodeak onartzen badituzte, eta Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 16. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen badituzte:

a. Gaur egun ere existitzen diren fundazio edo erakunde historikoak, Euskal Autonomia Erkidegoan berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea dutenak, baldin eta hirugarren sektore sozialeko sareren baten barnean badaude eta Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 2.1 eta 3. artikuluetan adierazitako irizpideak betetzen badituzte, nahiz eta beren jatorrizko estatutuek ezarri instituzio publikoen ordezkariek edukitzea presentzia handiena edo bakarra beren gobernu-organoetan. Erakunde horiek Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 2. artikuluaren 3. paragrafoaren a) apartatuan aipatutako zerrendan agertu beharko dute.

b. Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 3. artikuluan aurreikusitako betekizunetakoren bat betetzen ez duten erakundeak, baldin eta hirugarren sektore sozialeko erakundeek –zuzenean edo zeharka– gehiengoz partaidetuta badaude, erakunde horien helburu sozialak lortzeko eratuak izan badira, egoitza Euskadin badute eta jardueraren parte nagusia Euskadin egiten badute, eta jarduera hori irabazi-asmorik gabekoa bada. Merkataritza-sozietateak izanez gero, irabazi-asmorik gabekotzat hartuko da estatutuetan aurreikusita izatea

lortutako mozkinak erakundearen helburu diren jardueretan berrinbertitzeko beharra. Bereziki, esparru honetan sartuko dira enplegu-zentro bereziak eta gizarteratze- eta laneratze-enpresak, baldin eta dagozkien erregistro ofizialetan behar bezala inskribatuta badaude eta Hirugarren Sektoreari buruzko Legearen 2. artikuluaren hirugarren paragrafoan jasotako betekizunak betetzen badituzte, beren araudi espezifikoan aurreikusita daudenez gainera.

**4. artikulua.- Erroldaren edukia**

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan, gutxienez, datu hauek inskribatuko dira:

a) Erakundearen izena

b) Erakundearen izaera juridikoari dagokion erregistroan duen inskripzio-zenbakia.

c) IFZ, behartuta ez daudenak izan ezik.

d) Egoitza soziala

e) Erakundearen helburuak.

f) Jarduteko lurralde-eremua

g) Legezko ordezkaria

h) Erakundearen giza baliabideak, kontratatutako pertsonen eta boluntarioen kopurua adierazita.

i) Beste edozein datu, indarrean dagoen legeriak hala ezartzen badu.

**5. artikulua.- Inskripzioaren ondorioak**

1.- Beharrezkoa izango da inskribatzea euskal administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko eta haiek bultzatzen dituzten sustapen-neurriak eskuratzeko, diruz lagun daitezkeen programak barnean direla.

2.- Inskripzioak ez du inola ere eraketa-ondoriorik izango, ez eta baimen-ondoriorik ere.

3.- Inskribatzeko ebazpenak ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

4.- Inskripzioa eginda, errolda kudeatzen duen organoak ofizioz bultzatuko du Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorrean inskribatzeko prozedura hastea.

Horretarako, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda publikoan inskribatzeko ebazpena helaraziko zaio Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra kudeatzen duen organoari, inskribatzeko baldintzak betetzen direla egiazta dezan eta, hala badagokio, inskripzioa egin dezan.

**6. artikulua.- Inskripzio-eskabidea**

1.- Dekretu honen 3. artikuluan aipatzen diren Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak inskribatzeko prozedura hasteko, inskripzio-eskabidea egin beharko du erakunde horien ordezkariak.
2.- Inskripzio-eskabidea bide elektronikoz egin beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/009xxxx

**7. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

1.- Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira bide elektronikoz:

a) Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkaritza-egiaztagiria.

b) Erakundea eratzeko aktaren edo erakundea sortzeko erabakiaren kopia, bai eta estatutuen kopia ere.

c) Erakundearen izaera juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

d) Gobernu-organoa osatzen duten pertsonen nortasuna adierazten duen ziurtagiria.

e) Erakundearen giza baliabideak egiaztatzeko agiria, kontratatutako pertsonen eta boluntarioen kopurua adierazita.

2.- Aurreko paragrafoko b), c) eta d) apartatuetan aipatzen den dokumentazioa ez da aurkeztu beharko, baldin eta erakundea dagoeneko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren mendeko erregistro publiko batean inskribatuta badago.

3.- Eskabidean, aukera egongo da entitate interesdunak espresuki baimendu dezan dokumentazioaren zati bat organo kudeatzaileak lortzea edo egiaztatzea, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak esleituta dituen, egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak. Hala ere, erakunde eskatzaileak espresuki egin diezaioke uko egiaztatze horri, eta, hala eginez gero, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du.

4.- Organo kudeatzaile eskudunak egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta, eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela edo dokumenturen bat falta dela ikusten badu, erakunde interesdunari eskatuko dio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo falta diren nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta ohartaraziko dio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluaren arabera emandako ebazpenaren bidez.

**8. artikulua.- Inskripzio-prozeduraren ebazpena**

1.- Eskabidea eta erantsitako dokumentazioa ikusita, organo kudeatzaileak ebazpen arrazoitua emango du, eta dagokion inskripzioa agindu edo ukatuko du.

2.- Inskripzio-prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoan sartzen denetik. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, erakunde interesdunak baietsitzat jo dezake eskabidea, administrazio-isiltasunez.

3.- Emandako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke hierarkian organo kudeatzailearen gainetik dagoenari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

## 9. artikulua.- Datuak eguneratzea

1.- Inskribatutako datuen edozein eguneratze organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio, eguneratze hori justifikatzen duen dokumentazioarekin batera, 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Jakinarazpena ez da beharrezkoa izango, baldin eta informazio hori dagoeneko jasota badago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren mendeko erregistro publikoren batean.

2.- Betiere, inskripzioa egiteko oinarri izan ziren betekizunei eusten bazaie inskribatuko da eguneratzea.

3.- Datuen eguneratzea bide elektronikoz egin beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/009xxxx

4.- Organo kudeatzaileak edozein unetan eskatu ahal izango die inskribatutako erakundeei inskribatutako datuak berresteko edo egindako eguneratzeak jakinarazteko, eta ohartaraziko die, errekerimendu hori betetzen ez badute, ofizioz hasi ahal izango dela inskripzioa ezerezteko prozedura.

## 10. artikulua.- Inskripzioa ezereztea

1.- Ofizioz edo alderdi batek eskatuta ezereztu ahal izango da inskripzioa.

2.- Alderdi batek inskripzioa ezerezteko eskatu nahi badu, eskaera bide elektronikoz aurkeztu beharko du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/009xxxx

3.- Inskripzioaren ezereztea ofizioz hasi ahal izango da, organo kudeatzaileak jakiten duenean inskribatzeko beharrezko baldintzaren bat betetzen ez dela edo aurreko artikuluaren 4. apartatuan aurreikusitako kasuan, erakunde interesdunari hamar egun baliodunekoentzunaldi-izapidea egin ondoren, jakinarazpen-datatik zenbatzen hasita.

4.- Alderdi batek eskatuta hasitako ezerezte-prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoan sartzen denetik. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, erakunde interesdunak baietsitzat jo dezake eskabidea, administrazio-isiltasunez.

5.- Emandako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke hierarkian organo kudeatzailearen gainetik dagoenari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.- Ofizioz hasitako prozeduretan, ezerezteko prozedura hasteko erabakia hartzen den egunetik aurrera hasiko da hiru hilabeteko epea, eta, epe hori igarotakoan, prozedura iraungi egingo da.

## 11. artikulua.- Izapidetze elektronikoa

Izapidetzea bide elektronikoz egin beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/009xxxx

Espedienterako sarbidea eta eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: https://www.euskadi.eus/nirekarpeta.

**XEDAPEN GEHIGARRIA.- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko dirulaguntzen erakunde onuradunak inskribatzea**

Dekretu hau indarrean jartzen denean, erroldan inskribatuta geratuko dira, aldez aurretik eskatu beharrik izan gabe, honako dekretu honetan aurreikusi eta ebatzitako azken deialdiaren erakunde onuradunak: 271/2012 Dekretua, abenduaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituena. Hori bai, aldez aurretik ofizioz egiaztatu beharko da inskripzioa egiteko baldintzak betetzen direla.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.- Araubide iragankorra**

Dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo 6 hilabeteetatik aurrera, erroldan inskribatuta egotea eskatuko da euskal administrazio publikoek egiten dituzten dirulaguntzen deialdietan.

**AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.- Ordezko araubidea**

Administrazio-prozedurari buruz dekretu honetan espresuki aurreikusi ez den orori dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da.

**AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.- Erregelamenduzko garapena**

Gizarte-zerbitzuen arloko eskumenak esleituta dituen saileko titularrari ahalmena ematen zaio dekretu hau garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren ekintzak egin ditzan.

**AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.- Indarrean jartzea**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, …          .

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.